Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

## ZIZUR NAGUSIKO ZAINDARIAREN FESTETAN TXOSNAK JARTZEKO ARAUTEGIA

**1.-** Zizur Nagusiko biztanlegoari zuzendutako kirol, kultur edo sozial arloan, irabazteko asmorik gabe jarduerak egiten dituztenak eta Zizur Nagusian helbideraturik diren hiritar-erakundeei (Entitate, Elkarte, Taldeak,...) Zizur Nagusiko Festetan txosna jartzeko baimena eman ahalko zaie soilik.

**2.-** Zizur Nagusiko Udalak, Kultura eta Euskara Batzordeak proposaturik, txosnak jartzeko baimena ematea onartuko du eta bakoitzaren kokapena adieraziko du. Horretarako ondoko eremuak finkatzen dira:

- San Isidro 2 eta San Andres 12 eraikinen artean dagoen zelaia. Bertan, 4 metroko zabalera bider 8 metroko luzera gehienezko neurrien txosnak jartzen ahalko dira, grafikoki erabakiko den banaketaren arabera.
- Belaskoaingo Etorbidean, 31-35 zenbakien aurrean dagoen larraina.
- San Andres 8 eraikineko lehendabiziko solairuan dauden lokalak.
- San Isidro 2 zenbakian "Rock Etxea" deituriko eraikinaren beheko solairuan dauden lokalak.

**3.-** Txosna jartzeko eskabide kopuruak txosnak paratzeko erabilgarri den eremua gaindituko balu, bai ematean eta bai kokapenean hiritar-erakundeek lehentasuna izango dute, irizpide hauei jarraikiz:

- Aintzinatasuna.
- Ekonomi finantzaketaren behar objektiboa.
- Jardueraren etengabetasuna.
- Eskatzailearen ibilbidea.

**4.-** Txosna jartzeko baimena erdiesten duten hiritar-erakundeak egun bakoitzeko goizeko 10:00ak baino lehenago, erabiltzen duten

## NORMATIVA REGULADORA DE LA INSTALACION DE BARRACAS EN ZIZUR MAYOR DURANTE LAS FIESTAS PATRONALES

**1.-** Únicamente se podrá conceder permiso para la instalación de barracas durante las Fiestas Patronales de Zizur Mayor a aquellas organizaciones ciudadanas (Entidades, Asociaciones, Colectivos,...) con domicilio en Zizur Mayor, que realicen actividades sin ánimo de lucro, en el ámbito social, cultural o deportivo, dirigidas a la colectividad de Zizur Mayor.

**2.-** El Ayuntamiento de Zizur Mayor, a propuesta de la Comisión de Cultura y Euskera, decidirá la concesión de permisos para la instalación de barracas e indicará su ubicación a cada una de ellas. Para ello quedan establecidos los espacios siguientes:

- La campa existente entre los edificios de calle San Isidro 2 y de calle San Andrés 12, en la que se podrán instalar barracas de unas dimensiones máximas de 8 m. de largo por 4 m. de ancho, conforme a la distribución que gráficamente se disponga.
- La era existente al pie de la Avda. Belascoain, frente a los números 31-35.
- Los locales en planta primera del edificio de la calle San Andrés 8.
- Los locales en planta baja del edificio denominado "Rock Etxea" de la calle San Isidro 2.

**3.-** En caso de que el número de solicitudes para la instalación de barracas exceda de la disponibilidad de espacio suficiente para albergarlas, tendrán prioridad tanto en la concesión como en la ubicación, las organizaciones ciudadanas con arreglo a los criterios siguientes:

- Antigüedad.
- Necesidad objetiva de financiación económica.
- Continuidad de la actividad.
- Trayectoria del solicitante.

**4.-** Las organizaciones ciudadanas que obtengan el permiso para la instalación de barraca quedan obligadas a realizar la limpieza del entorno que

Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

ingurunea garbitzera beharturik daude. Halaber, Festak bukatzerakoan, txosna kendu ondoren, txosnaren azpian pilatu diren hondakinen garbiketa eginen dute.

**5.-** Txosnak musika izan ahalko du, baina honek, gehienez, gaueko dantzaldia bukatu arte iraunen du (goizaldeko 4:00- 4:30ak).

Txosnek izan ditzaketen zerbitzuetako lotura guztiak (ura, argi-indarra....) dagokien hornitzaile enpresekin legez kontratatuak izan beharko dira.

**6.-** Txosna jartzeko baimena lortzen duten hiritar-erakundeak jardueraren bilakaeran eragin ditzaketen galera eta kalteen erantzuleak dira. Hori dela eta, denbora osoan 18 urtetik gora duen pertsona bat egonen da txosnaren aurrean, beraren arduraduna izanen dena.

Halaber, osasunezko gaian eta adinez txikiei alkoholdun edarien banaketari dagokienean indarrean dagoen arautegia betetzera bereziki beharturik daude.

**7.-** Honako Arautegian jasotzen den edo-zein eginkizun bete ezean, hiritar-erakundeek txosna jartzeko baimenaren lorpenarekin hartzen dutela, Alkatetzak txosnaren itxiera dekretatu ahalko du eta/edo Udalak erabakitzen duen denboraz txosna jartzeko eskubide guztien galerarekin ez betetze hori zigortu ahalko du.

**8.-** Eskabideak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira uneko urteko uztailaren 31ko 14:30ak baino lehen, arautegi honen 1 puntuan aipatutakoa egiaztatzeko egokitzat jotzen duen dokumentazioarekin batera, epez kanpo aurkeztutako eskabideak izan litekeen eskubidea ahulduta gelditzen delarik.

ocupen, antes de las 10:00 horas de cada día. Así mismo, una vez retirada la barraca al finalizar las Fiestas Patronales, efectuarán la limpieza de residuos que hayan podido acumularse bajo la instalación.

**5.-** La barraca podrá disponer de instalación para música, pero ésta durará, como máximo, hasta que finalice el baile de la noche (4:00-4:30 de la madrugada).

Todos los enganches de servicios con los que se doten (electricidad, agua u otros) deberán ser legalmente contratados con las respectivas empresas suministradoras.

**6.-** Las organizaciones ciudadanas que obtengan el permiso para la instalación de barracas son responsables de los daños y perjuicios que pudieran ocasionar en el ejercicio de la actividad, por lo que en todo momento deberá haber al frente de la barraca una persona mayor de 18 años que figurará como responsable de la misma.

Así mismo, quedan especialmente obligadas al cumplimiento de la normativa vigente en materia higiénico-sanitaria y en lo referente a expedición de bebidas alcohólicas a menores de edad.

**7.-** En caso de incumplimiento de cualquiera de las obligaciones recogidas en la presente Normativa, que las organizaciones ciudadanas contraen con ocasión de la obtención del permiso para la instalación de barraca, Alcaldía podrá decretar el cierre de la misma y/o el Ayuntamiento podrá sancionar el incumplimiento con la pérdida de todos los derechos de instalación de barraca por el tiempo que se determine.

**8.-** Las solicitudes se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento antes de las 14:30 horas del 31 de julio del año en curso, junto con la documentación que se considere oportuna para acreditar los aspectos señalados en el punto 1 del presente condicionado, quedando decaído en su posible derecho quien presente su solicitud fuera de plazo.

Zizur Nagusia, 2023ko apirilak / Zizur Mayor, abril de 2023